



GAS HORNIDURA

OINARRIZKO MAILA

Prozedura irekiaren eta lehiaketa bidezko esleipenaren bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

Ingurumen irizpide horiek honela kontratatzeko balio dute: prozedura irekiaren edo mugatuaren (aurretiazko hautatze fasea egokitu behar da) bidez zein eskaintza orokor onenaren edo preziorik onena eskaintzen duen eskaintzaren (ez dira aplikatuko gorago azaldutako esleitze irizpideak) bidez.

1. Kontratuaren xedea

Atal honetan, ingurumen arloko irizpideak aintzat hartuko direla azpimarratu beharra dago:

1. Koadroa

Gas naturalaren hornidura

Kontratu honen helburua gas naturalez hornitzea da [kontsumo guneak definitzea]ren eskariari aurre egiteko, titularra [erakunde kontratatzailea] da.

2. Hautatzeko irizpideak: Gaitasun teknikoa eta profesionala.

Erakunde lizitatzailerik bete beharreko gutxieneko baldintzak dira eta proposamenaren agirietan egiaztatu beharko dituzte. Atal honetan ez dira garatu energia hornidura kontratatzeko gaitasunaren irizpideak.

3. Bete beharreko espezifikazio teknikoak

Erakunde lizitatzailerik aurkezten duten proposamenean agirietako betekizun teknikoak betetzen dituztela egiaztatu behar dute, kontratazioan bete daitezkeen eskatzen diren ingurumen betekizunak. Bete beharrekoak dira eta ez dira baloratzeko modukoak, baizik eta bete beharreko betekizunak, SPKLTBren 126. artikulua araberak.

3.1. Kontsumitzailearentzako informazioa

2. Koadroa

Kontsumitzailearentzako informazioa

Enpresa esleipendunak ondorengo horniduretarako kontratatu beharreko tarifaren berri eman behar du, sarerako sarbidearen kostua merkatzeko; halaber, eta kWh-ren kontuan eragina duten bestelako parametroen berri eman behar du.

Erakunde esleipendunak honakoa jakinarazi behar dio hileroko erakunde lizitatzailerari:

– Fakturan, Igarotako epean hornitutakoaren kontratu guztien batura. Faktura horretan honakoak banakatuko dira:

- Termino finkoari dagokion guztizko zenbatekoa.
- Energia terminoari dagokion guztizko zenbatekoa.
- Hidrokarburoen gaineko zergaren zenbatekoa.
- BEZaren guztizko zenbatekoa.

Faktura hori formatu elektronikoan eman behar da.

– Artxibo bat, excel formatuan edo erakunde kontratatzaileak erabilitako informazio sistemarekin bateragarria den bestelako formatuan. Artxibo horretako zerrendetan kontratu guztiak agertuko dira eta zutabeetan, berriz, honako informazioa agertu behar da kontratu bakoitzerako:

- Kontratuaren Hornidura-puntuaren kode unibertsala (HPKU).
- Merkaturatzaileak esleitutako kontratuaren erreferentzia.
- Horniduraren helbidea.
- Fakturazio aldia.
- Sartzeko tarifa
- Finkoa kWh-etan. (1. eta 2. taldeko tarifak)
- Eguneko kontratatutako gehieneko kapazitatea kWh-n (1. eta 2. taldeko tarifak)
- Energia terminoa kWh-etan.
- Goreneko bero ahalmena (GBA).
- Energia kWh-etan.
- Termino finkoaren kostua eurotan.
- Energia terminoaren kostua eurotan.
- Hidrokarburoen gaineko zergaren kostua eurotan.
- Gas naturalaren horniduraren gaineko bestelako datuak, erakunde

lizitatzailleak interesgarritzat jotzen badu.

Erakunde esleipendunak honako bidali behar du urtero:

- Hornidura gune bakoitzaren kontsumoaren urteko eboluzioaren gaineko txostena, edo erakunde kontratatzaileak erabilitako informazio sistemarekin formatu bateragarrian.

4. Zerbitzua betearazteko irizpideak.

Kontratua betearazteko baldintza bereziak dira (SPKLTBren 202. art.). Agiriak edo kontratuak hiru kontu ezar ditzake kontratua bera betetzen ez bada:

- a) Ez betetzearekin proportzionalak diren zehapenak ezartzea eta kontratuaren aurrekontuaren % 10 gainditu gabe (SPKLTBren 192. eta 193. art.).
- b) Kontratuaren funtsezko baldintzaren ez betetzeztat jotzea, beraz, kontratua indargabetzen da kontratatzailearen erruzko ez-betetzeagatik (SPKLTBren 211. art. SPKLTBren 213. artikulua ondoarekin).
- c) Kontratua suntsitzeko baldintzatzat jotzen ez bada, arau-hauste larria izango da eta berriz ezingo da administrazioarekin kontratatu ((SPKLTBren 71. art.).

5. Esleitzeko irizpideak

Esleitzeko irizpide bakoitza zehatz-mehatz zehaztu behar da eta esleipenerako ezarritako puntuazioaren barruan puntuak zelan emango diren ezarri. Garrantzitsua da ingurumen irizpideon eta kontratua esleitzeko gainerako irizpideen arteko orekari eustea.

6. Eskaintza teknikoaren edukia

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lizitazio-deialdian zehaztuko da, balizko lizitatzailleek behar beste denborarekin jakin dezaten.

3. Koadroa

Erakunde lizitatzailleek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, jarraian zehaztutako moduan:

- a) Memoria tekniko eta, bertan, honako informazio hau jasoko da gutxienez:
 - Kontsumitzaileentzako informazioa eta txostenen formatua.
- b) Betekizun espezifikoen fitxa, behar den moduan beteta, sinatuta eta zigilatuta. Hari egiaztagiri guztiak erantsiko zaizkio, bermatzeko betetzen direla bai nahitaezko espezifikazioak, bai baloratzekoak direnak, erakunde lizitatzailleak

agintzen dituenak.

Orrian definitutako estandarren eta beste frogagiri baliokide batzuen arteko baliokidetasuna frogatzea eskaintzailearen kontura da; horretarako, baliokidetasun hori argi frogatzen duten ikerketa teknikoak aurkeztu beharko dituzte.